

UDAZ

blai 2020



elkargunea



AZKOITIA
Udala

Uztaila jolasean

Udaleku irekiak

HH3-LH6 mailak



Ekintzak:

Uztailaren bi txandatan burutuko dira. Lehenengoa, uztailaren 1etik 14ra (biak barne) eta bigarrena uztailaren 15etik 28ra (biak barne).

- Ekintzak goizez egingo dira 10:00-13:00, txanda bakoitzean egiten den egun pasako eguna izan ezik.
- Era askotako ekintzak izango dira, jolasak, jokoak, egun pasa, igerilekuak, musika, antzerkia, dantza, kirola...

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

2016-2008 urte bitartean jaioa izatea. 2016an jaiotakoentzat lehen aldia izango da. Batzuk garbi izango dute txanda bakarrean edo bietan izena eman nahi izatea; beste batzuk ordea, beraien seme-alaba nola dabilen ikusi nahiko dute, bigarren txandan izena eman aurretik. Hauentzat, bigarren txandarako izena emateko epea uztailaren 8an bukatuko da.

IZEN EMATEA:

- Online www.alaibatza.com eta www.gazteriazkoitia.eus web-orrietan dauden formularioak betez egin beharko da. Online egiteko aukerarik ez denean telefonoz egin ahal izango da Alai Batzaren 623180388 telefonora edo Gazteria zerbitzuaren 943026027 telefonora deituz.
- Epea maiatzaren 18tik 31ra izango da.

ORDAINKETA:

- Kopurua:
 - Txanda bakarra: 52,00 €. Familia beretik haur bat baino gehiago izanez gero, bigarrenak 42,00€ baldin eta biak txanda berean baldin badira. Udalekuko kamiseta opari.
 - Bi txanda: 104,00€. Familia beretik haur bat baino gehiago izanez gero, bigarrenak 84,00€ baldin eta biak txanda bietan baldin badira. Udalekuko kamiseta opari.

- Familia ugarikoa denaren kasuan, %25eko beherapena izango du Uztaila Jolasean programan izena ematen duenak, beraz 39,00€ ordaindu beharko ditu bakoitzak.
- Ordainketa egiteko kontuaren zenbakia:

Euskadiko kutxa-Caja laboral
ES57 3035 0031 77 0311063370

FORMULARIOAN TXERTATU BEHARREKO AGIRIAK

- Izen emate formularioa beteta.
- Argazkia: lehendabiziko aldiz izena ematen dutenek txertatu beharko dute. Aurreko urtetan egon bada ez du argazkia txertatu beharrik.
- Osakidetzako txartelaren irudia.
- Ordainketa agiria.
- Familia ugarien kasuan, hala dela baieztatzen duen ziurtagiria.


HARREMANETARAKO DATUAK:

Alai Batza 623 180 388
uztailajolasean@alaibatza.com

OHARRA

- Lehenengo aldiz parte hartuko duten haurren gurasoentzat bilera, ekainaren 19an arratsaldeko 18:00etan Elkargunean Oteiza aretoan egingo da. Bilera honetan ekintzen egitaraua azalduko da. Zalantzak argitzeko aukera ere izango da.
- Haurrak 10:00etan Eliza atarian bilduko dira eta ekintzak bukatutakoan, 13:00etan, Eliza atarian elkartuko dira gurasoekin.
- COVID-19 egoerak, ekintzak egitea galaraziko balu, ordaindutako kopurua, ordainketa egin den kontu zenbakira itzuliko da atzera.
- COVID-19 egoerak eragindako aldaketarik izango balitz, aurrez aipatutako web-orrien bidez zabalduko dira, beraz web-orri horietan arreta ipintzea gomendatzen da.

Praka motxakin



Udaleku irekiak 10-12 urte bitartekoentzat

PROGRAMA:

Ekintzak ekainaren 29tik uztailaren 10era garatuko dira eta txanda bakarrean.

BALDINTZAK:

- 10-12 urte bitartekoa izatea (LH4-LH5 eta LH6 mailako haurrak)
- Azkoitiarra izatea.

IZEN EMATEA:

- Maiatzaren 18tik 31ra ludotekan bazkideak izan direnentzat eta ekainaren 1etik 5era beste guztientzat.
- Online www.gazteriazkoitia.eus eta www.alaibatza.com web-orrietan izango diren formularioak betez egingo da. Online egin ezin duenak 943026027 telefonora deituz egin ahal izango du 16:30etatik 20:00etara
- Plaza mugatuak; programa garatzeko gutxieneko izen ematea izan beharko du eta haur gehiagok izena eman ezker, izena emandako ordena errespetatuko da.

ORDAINKETA:

- Kopurua: 65,00€.
- Familia beretik haur bat baino gehiago izanez gero, bigarren haurrak 55,00€ ordainduko du.
- Familia ugarien kasuan %25eko deskontua izango du, beraz 48,75€ ordaindu beharko ditu bakoitzak.

FORMULARIOAN TXERTATU BEHARREKO AGIRIAK:

- Osakidetzako txartelaren irudia.
- Ordain agiria
- Familia ugarien kasuan, %25eko deskontuaz goza ahal izateko, familia ugariaren ziurtagiriaren kopia.

HARREMANETARAKO DATUAK

Gazte Zerbitzu Bulegoa, (Elkargunean);
943 02 60 27 edo gazteinfo@gazteriazkoitia.eus
Bulego ordutegia, astelehenetik ostegunera
16:30 - 20:00 eta ostiraletan 09:30-12:30 eta
16:30-20:00

OHARRA

- Izena ematen duten haurren gurasoekin programa ezagutu eta hezitzaileak ezagutze-ko informazio bilera bat egingo da.
- COVID-19 egoerak, ekintzak egitea galaraziko balu, ordaindutako kopurua, ordainketa egin den kontu zenbakira itzuliko da atzera.
- COVID-19 egoerak eragindako aldaketarik izango balitz, aurrez aipatutako web-orrien bidez zabalduko dira, beraz web-orri horietan arreta ipintzea gomendatzen da.




Praka motxakin



Praka motxakin

A rtx@bentura



Udaleku irekiak 13-16 urte bitartekoentzat

PROGRAMA:

Ekintzak ekainaren 22tik uztailaren 3ra garatuko dira eta txanda bakarrean.

BALDINTZAK:

- 13-16 urte bitartekoa izatea (DBH1 – DBH4 bitarteko nerabeak)
- Azkoitiarra izatea

IZEN EMATEA:

- Maiatzaren 18tik 31ra.
- Online www.gazteriazkoitia.eus eta www.alaibatza.com web-orrietan horretarako izango den formularioa betez egin behar da. Online ezin duenak egin, 943026027 telefonara deituz egin dezake Gazte Zerbitzu Bulegoan, 16:30etatik 20:00etara.
- Plaza mugatuak; programa garatzeko gutxienezko izen ematea izan beharko du eta nerabe gehiagok izena eman ezker, izena emandako ordena errespetatuko da.

- Programan izen ematea 100€ izango da. Familia beretik nerabe bat baino gehiago izanez gero, bigarrenak 80,00€ ordainduko du.
- Familia ugarikoa denaren kasuan, %25eko beherapena izango du programan izena ematen duenak, beraz 75,00€ ordaindu beharko ditu bakoitzak.

FORMULARIOAN TXERTATU BEHARREKO AGIRIAK:

- Osakidetzako txartelaren irudia.
- Ordain agiria
- Familia ugarien kasuan, %25eko deskontuaz goza ahal izateko, familia ugariaren ziurtagiriaren kopia.

HARREMANETARAKO DATUAK:


Gazte Zerbitzu Bulegoa, (Elkargunean); 943 026 027 edo gazteinfo@gazteriazkoitia.eus Bulegoaren ordutegia, astelehenetik ostegunera 16:30 - 20:00 eta ostiraletan 09:30-12:30 eta 16:30-20:00.

OHARRA

- Izena ematen duten nerabeen gurasoekin programa ezagutu eta hezitzaileak ezagutzeko aurkezpen bilera bat egingo da.
- COVID-19 egoerak, ekintzak egitea galaraziko balu, ordaindutako kopurua, ordainketa egin den kontu zenbakira itzuliko da atzera.
- COVID-19 egoerak eragindako aldataririk izango balitz, aurrez aipatutako web-orrien bidez zabalduko dira, beraz web-orri horietan arreta ipintzea gomendatzen da.



Robotika uztailean



LH3- LH6 eta DBH1-DBH4 mailak

EKINTZAK:

- Ekainaren 29tik uztailearen 3ra (biak barne) egingo da "Robotika uztailean" udalekoa.
- Ekintzak goizez egingo dira 9:30-13:30 ordutegian.
- Bi adin tarteko taldeak izango dira, LH3-LH6 adin tartekoekin osatutako taldea eta DBH1-DBH4 adin tartekoekin osatutakoa hain zuzen.
- Robotika udalekoa Elkargunean egingo da.
- Landuko dena:
 - Robotika: LEGO WEDO, MINDS TORMS EV3 (Txapelketak) eta MAKEBLOCK
 - Bideojokoen sorkuntza: SCRATCH eta KODU
 - Minecraft: KOMANDO ETA ERAIKUNTZAK

IZEN EMATEA

- Online www.gazteriazkoitia.eus edo www.alaibatza.com web orrietan formularioa betez egingo da. Online ezin duenak egin, Gazte zerbitzu bulegoan astelehenetik ostegunera 16:30 - 20:00 eta ostiraletan 09:30-12:00 eta 16:30-19:30 943026027 telefonora deituz egin ahal dezake.
- Epea maiatzaren 18tik ekainaren 5era izango da.
- Taldea osatu eta udalekoa egin ahal izateko adin tarte bakoitzeko (LH3-LH6 bitartekoak eta DB1-DBH4 bitartekoak) 8 partaide izan beharko dute gutxienez eta 15 partaidekoa gehienez.



ORDAINKETA

- Kopurua:
 - Udalekuaren prezioa partaide bakoitzeko 105,00€koa izango da (Berezko prezioa 145,00€ baldin bada ere, udalaren laguntzarekin 105,00€ -tan gelditzen da).
 - Familia ugariak denaren kasuan, %25eko beherapena izango du Robotika uztailean programan izena ematen duenak, beraz 78,75€ ordaindu beharko ditu bakoitzak kasu honetan.
- Ordainketa egiteko kontuaren zenbakia:
 - Euskadiko kutxa-Caja laboral ES28 3035 0183 67 1830021298
 - Haur edo nerabearen izen abizenak eta ROBOTIKA UZTAILEAN ipini behar dira ordainketa agirirako.

FORMULARIOAN TXERTATU BEHARREKO AGIRIAK

- Ordainketa agiria.
- Familia ugarien kasuan, hala dela baieztatzen duen ziurtagiria.

HARREMANETARAKO DATUAK

Gazte Informazio Bulegoa, (Elkargunean); 943.02.60.27 edo gazteinfo@gazteriazkoitia.eus Bulego ordutegia, astelehenetik ostegunera 16:30 - 20:00 eta ostiraletan 09:30-12:30 eta 16:30-19:30

OHARRA:

- COVID-19 egoerak, ekintzak egitea galaraziko balu, ordaindutako kopurua, ordainketa egin den kontu zenbakira itzuliko da atzera.
- COVID-19 egoerak eragindako aldaketarik izango balitz, aurrez aipatutako web-orrien bidez zabalduko dira, beraz web-orri horietan arreta ipintzea gomendatzen da.

Udalekuan landuko denaren nondik norako informazio gehiago www.doplay.es atarian



Uztaila jolasean



Uztaila jolasean



A rtx@bentura



Praka motxakin



Robotika



rtx@bentura



Uztaila jolasean



Robotika uztailan



Praka motxakin

AZKOITIKO UDALAREN GAZTERIA SAILA
ALAI BATZA AISIALDI ELKARTEA
ABARKETATXO LUDOTEKA
ARTXAMENDI GAZTE TOPALEKUA